

¿Eres joven
y te gustaría incorporarte
al sector agrario?

Te apoyamos en tu proceso de instalación



INSTALACIÓN DE JÓVENES EN EL SECTOR AGRARIO MEDIANTE LA AGROECOLOGÍA Y EL DESARROLLO DE CIRCUITOS PRÓXIMOS DE COMERCIALIZACIÓN

La evolución del sector agrario en las últimas décadas, nos ha llevado a una industrialización de la producción, pérdida de la biodiversidad y de variedades autóctonas y a una dependencia de los mercados globales conduciendo todo ello a un abandono de la actividad y a una falta de relevo en el campo.

Ante esta realidad, hace ya unos años que desde distintas organizaciones se toma la decisión de apostar claramente por el modelo agroecológico como camino para alcanzar la SOBERANÍA ALIMENTARIA, modelo sostenible y socialmente justo.

Para ello, llevamos tiempo desarrollando diferentes ejes de trabajo, siempre con una visión integral y mediante un proceso colectivo.

▶ Acompañamiento mediante la formación y el aprendizaje

Debido al trabajo de sensibilización y de concienciación que diferentes organizaciones estamos llevando a cabo en torno a la agroecología y la soberanía alimentaria, cada vez son más las personas que valoran la posibilidad de desarrollar un proyecto de autoempleo en el medio rural.

La mayoría de estas personas vienen de entornos urbanos, y aunque en general tienen claro que quieren desarrollar un proyecto agroecológico, no cuentan con la formación ni los conocimientos necesarios para poder llevar a cabo, con un mínimo de viabilidad, este proceso.

Por eso desde Ehne-Bizkaia, en colaboración con otras organizaciones, se ayuda a poner en marcha un proceso de acompañamiento con un plan de formación y aprendizaje, que consiste en diferentes talleres, cursos, prácticas, etc.

Además contamos con el compromiso de muchos y muchas baserritarras que realizan una labor de promoción en sus comarcas o municipios, transmitiendo a nuevas generaciones, todos sus conocimientos campesinos.

▶ Instalación progresiva

Muchas personas jóvenes han iniciado su actividad haciendo grandes inversiones, impulsadas por el modelo intensivo, o para cumplir las condiciones impuestas para percibir las ayudas a la primera instalación, viéndose después con dificultades para su amortización y para su continuación en el sector.

Nuestra apuesta es por una instalación progresiva, ya que es la más segura, la más lógica y la que menos riesgos conlleva, con las mínimas inversiones, para poder ir creciendo conforme ganamos en seguridad, conocimientos y creamos nuestros canales de comercialización.

▶ Circuitos próximos de comercialización

Cada vez está más claro que la recuperación de los circuitos de proximidad en la comercialización son los únicos que nos pueden ayudar en estos procesos.

La apuesta por revitalizar los mercados municipales y las ferias con productos locales y de temporada, la recuperación de la gestión de los comedores escolares desde lo local y su importancia como espacio educativo o el desarrollo de los grupos de apoyo de la red "Nekasarea", basados en la responsabilidad compartida entre personas baserritarras y consumidoras, son imprescindibles para el desarrollo del medio rural y las nuevas instalaciones.

Estos circuitos han de ser próximos en lo físico pero igualmente en lo humano y han de servirnos para recuperar las relaciones entre las personas así como la capacidad de decisión como baserritarras y como ciudadanas en lo que a la alimentación se refiere.

▶ Proyecto colectivo, alianzas y cambio de valores

No basta únicamente con cambiar el modo de producción o comercialización, hemos de incorporar nuevos valores en todo el proceso de nuestros alimentos ya que únicamente de esta forma podremos crear una alternativa real, transformadora al sistema y equitativa entre mujeres y hombres.

Las alianzas con otras organizaciones y colectivos y el trabajo en red están dando sus frutos, generando empleo y cada vez más instalaciones de jóvenes en el sector agrario.

Si quieres tomar parte de este nuevo campesinado y ayudar a cambiar los valores de: individualismo por procesos colectivos, competencia por solidaridad, monocultivo por biodiversidad, consumismo pasivo por responsabilidad compartida, o clientes por ciudadanía comprometida, contacta con Ehne-Bizkaia.

Tel: 946232730 - <http://www.ehnebizkaia.eu/jovenes/>

Gazte, nekazaritza-sektorean aritu nahi?

Instalazio-prozesuan lagunduko dizugu



GAZTEAK NEKAZARITZA-SEKTOREAN SAR DAITEZEN BULTZATZEA, AGROEKOLOGIA ETA GERTUKO MERKATURATZE-ZIRKUITUAK BALIATUTA

Nekazaritza-sektoreak azken hamarkadetan izandako bilakaerak zenbait ondorio eragin ditu: ekoizpena industrializatzea; bioaniztasunaren eta bertako barietateen galera eta mundu-merkatuekiko mendekotasuna. Horiek guztiak direla medio, bada, nekazaritza aritzeari utzi zaio eta belaunaldi berriek ez dute lekukoa hartu.

Egoera horren aurrean, zenbait erakundek zera erabaki zuten orain urte batzuk: eredu agroekologikoaren aldeko apustu irmoa egitea, ELIKADURA-SUBIRANOTASUNA lortzeko eredu jasagarria eta sozialki justua dela ulertuta.

Ildo horretan, aspalditik ari gara zenbait lan-ildo garatzen, betiere, ikuspegi integrala lagun eta prozesu kolektiboa baliatuta.

▶ Prestakuntzaren eta ikaskuntzaren bidez laguntzea

Hainbat erakunde sentsibilizazio- eta kontzientziatze-lana egiten ari gara agroekologiaren eta elikadura-subiranotasunaren arloan. Lan horri esker, gero eta gehiago dira landa-eremuan autoenplegu-proiektu bati ekiteko aukera aztertzen ari diren lagunak.

Lagun gehienak, baina, hiriguneetan hazi dira, eta, oro har, proiektu agroekologiko bat garatu nahi dutela argi badute ere, ez dute nahikoa prestakuntza eta ezagutzarik prozesu hori aurrera eramateko gutxieneko bideragarritasun-baldintza batzuetan.

Horregatik, Ehne-Bizkaiak, beste erakunde batzuekin lankidetzan, laguntza emateko prozesu bat eskaintzen du. Prestakuntza- eta ikaskuntza-plan bat da, honako hauek osatuta: askotariko tailerrak, ikastaroak, praktikak eta abar.

Halaber, baserriar asko proiektu honekin konprometituta daude; sustapen-lana egiten dute euren eskualde edo udalerrietan, eta belaunaldi berriei nekazaritzari buruz dituzten ezagutza guztiak helarazten dizkiete.

▶ Instalazio progresiboa

Gazte askok lanean hasi eta inbertsio handiak egin dituzte, eredu intentsiboak bultzatuta, edo lehenengo instalaziorako diru-laguntzak eskuratu ahal izateko baldintzak betetzearren. Gero, bada, inbertsioak amortizatzeke eta are sektorean jarraitu ahal izateko zailtasunak dituzte.

Guk, ordea, instalazio progresiboaren aldeko apustua egiten dugu. Seguruena, logikoena eta arrisku gutxien dakarrena dela uste dugu. Izan ere, gutxieneko inbertsioak eginda, instalazioa hazi egingo da, segurtasun handiagoa eta ezagutza gehiago ditugun heinean eta geure merkaturatze-bideak sortu ahal.

▶ Gertuko merkaturatze-zirkuituak

Gero eta argiago dugu gertuko merkaturatze-zirkuituak berreskuratzea dela prozesu honetan aurrera egiteko bide bakarra.

Honako ekimen hauek ezinbestekoak dira landa-eremuaren garapenerako eta instalazio berriak bultzatzeko: udal-merkatuak eta azokak biziberritzearen aldeko apustua, tokiko produktuak eta sasoiak sasoikoak merkaturatzeko; eskola-jantokien kudeaketa berreskuratzea, tokian tokikoa balioetsiz eta hezkuntzarako espazio gisa duten garrantzia aldarrikatuz eta "Nekasarea" sarea babesteko taldeak bultzatzea. Hain zuzen, baserriarren eta kontsumitzaileen ardura partekatuan oinarritzen dira talde horiek.

Merkaturatze-zirkuitu horiek gertukoak izan behar dute, baina ez soilik fisikoki; humanoagoak ere egin behar ditugu. Pertsonen arteko harremanak berreskuratzeke balio behar dute, eta baserriar eta herritar gisa geure elikaduraren gainean erabakiak hartzeko dugun ahalmena sendotu.

▶ Proiektu kolektiboa: aliantzak eta balioen aldaketa

Ekoizteko eta merkaturatzeko modua aldatzea ez da aski. Ezinbestekoa da balio berriak txertatzea elikagaien prozesu guztian. Hori da, hain zuzen, benetako alternatiba bat, sistema eraldatzeko gai izango dena eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko duena sortzeko modu bakarra.

Beste erakunde eta talde batzuekin bideratutako aliantzek eta sare-lanak euren fruituak ematen ari dira: enplegua hazi egin da, eta gero eta gazte gehiago ari dira nekazaritzaren sektorean instalazioak jartzen.

Nekazaritza-modu berri honetan parte hartu nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Ehne-Bizkaiarekin. Balioak aldatzea da gure helburua, lagun iezaguzu. Indibidualismoaren ordez, prozesu kolektiboak; lehiakortasunaren ordez, elkartzasuna; monolaborantzaaren ordez, bioaniztasuna; kontsumismo pasiboaren ordez, ardura partekatua eta bezeroen ordez, herritar konprometitua.

Tel: 946232730 - <https://www.ehnebizkaia.eus/gazteak/>